

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

35/2026 Mozioa, martxoaren 18koa, etxebizitza politikaren ingurukoa

Arabako Batzar Nagusiek, 2026ko martxoaren 18an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

35/2026 Mozioa, martxoaren 18koa, etxebizitza politikaren ingurukoa.

Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aurrera egin dezala aurrekontu-akordioaren etxebizitzaren aldeko ituna betetzeko. Honako hauek jaso behar dira bertan:

– Toki-erakundeentzako laguntzak, alokairu sozialera, babestutako alokairura eta gazteen emantzipaziora bideratutako etxebizitzak erosteko eta birgaitzeko.

– Etxebizitzak birgaitzeko laguntzak, ondoren Arabako Foru Aldundiaren arrazoizko prezio mugatuan etxebizitzak alokatzeko berme-programan sartzeko.

– Abian jartzea Belaunaldien arteko Foru Bitartekaritzako lehen Plana, egoitza batean biziko diren adinekoen jabetzako etxebizitzak familia gazteek alokatzeko, arrazoizko prezioan eta prezio mugatuan. Arabako Lurralde Historiko osorako, Vitoria-Gasteiz barne.

– Gauzatzea, Araba Garapen Agentziaren bidez, etxebizitza publikoak eraikitzeko programa, Arabako landa-eremuan alokairu babestua izateko.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 18a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA